

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Amurrioko AI-28 Lekamaña eremu integratua birpartzelatzeko proiektuari hasierako onespena ematea. 2025/2539 espedientea

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko uztailaren 9an, hasiera batean onartu zuen Amurrioko AI-28 Lekamaña eremu integratua birzatitzeko proiektua, Axiber Aspuru Verak sustatua. Proiektu horren xedea da AI -28 Lekamaña Eremu Integratuan dauden finka guztiak elkartzea, HAPOn jasotako antolamendu xehatuari egokitutako banaketa berria egiteko. Banaketa horren arabera, bizitegi-erabilerako bi partzela pribatu eta Lekamañako kontzejuari lagatzeko partzela bat – 680m²-ko azalera – sortuko dira, “ekipamendu instituzionala eta, oro har, zerbitzuak” erabiltzeko.

Espediente hau jendaurrean egongo da hogeit egunez, aztertu eta bidezko alegazioak aurkeztu ahal izateko. Horretarako, iragarkia ALHAOn, Amurrioko udaletxeko iragarki-oholean eta lurralde historikoan zirkulazio handiena duen egunkarietako batean argitaratuko da.

Amurrio, 2026ko uztailaren 16a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA